

DIRU SARRERAK

Proiektua martxan jartzeko: inbertsio nagusia ordaintzeko beharrezko diru sarrerak alde batetik bazkide bakoitzaren ekarpenetatik eta bestetik mailegu baten bitartez lortuko ditugu.

Denon artean adostu dugun partaidetza izango da, hau da, denon artean dirua jarriko dugu eta bankuari mailegu bat eskatuko diogu.

Alde batetik, bakoitzak emango duen partaidetza 200.000€-koa izango da, hau da, bost kideen artean 1.000.000€ jarriko genuke. Beste guztia, (beste 4.000.000€ millioi inguru) bankuari eskatuko diogu mailegu moduan eta zatika ordainduko dugu .

Behin aquaparka martxan dagoenean diru sarrerak hainbat bide desberdinetatik lortuko ditugu, hurrengoak dira nagusienak:

Sarreraren salmenta:

Gure aquapark-era sartzeko sarrera orokorraren prezioa 22€ izango da. Sarrera honek egun guztia egoteko da, baina barruan erosten dituzten elikagaiak aparte ordaindu beharko dira.

Erabiltzaile talde batzuk prezio bereziak izango dituzte:

- 0-12 urteen arteko umeak 10€ ordaindu beharko dute eta sarrerarekin ur botila bat oparitzen dugu.
- 12-17 urteen arteko umeak 16€ ordaindu behar dute eta sarrerarekin freskagarri bat oparitzen diegu.
- Talde sarrera: 15 pertsona baino gehiagoko taldeek %20ko deskontua izango dute
- Familia ugarien kasuan %10eko deskontua izango dute
- Mugikortasun zailtasunak dituzten erabiltzaileentzat 10€tan finkatu dugu prezioa, parkearen zonalde bat bakarrik erabili ahal dutelako, eta modu honetan ere segmentu hau erakartzeko balioko du.



Prezioak finkatuta, sarreren salmenta kopuruaren estimazioa egin dugu. Urtean zehar hainbat garai desberdinu ditugu, klima eta oporrak markatuta.

Denboraldia	Sarrera salmenta kopurua	Diru Sarrerak
Apirila-Maiatza-Urria	75.500	981.500,00 €
Ekaina-Uztaila-Abuztua-Iraila	156.000	2.028.000,00 €
Urteko beste hilabeteak	42.000	546.000,00 €
GUZTIRA	273.500	3.555.500,00 €

Patrozinadoreak:

Patrozinadoreei dagokienez diru-sarrerak izango ditugu empresa desberdinen aldetik publizitatearen bidez. Gure patrozinadoreak hiru izango dira. Hasteko, ALSA enpresa, publizitatea egingo digu beraien autobus batzuetan gure akuapark logoa jartzen eta gure telefono zenbakia, haiekin hilabetero gutxi gorabera 15.000€ irabaziko ditugu. Beste aldetik, Burger King bereain telebistako anuntzio batzuetan jarriko digute nohiz behinka eta haien bidez 25.000€ gorabehera irabaziko ditugu hilabetero. Gure azken patrozinadorea KUNHUI flotagailu puzgarrien enpresak izango da, haien dendetan emango diete gure akuaparken publizitatea flotagailu bat saltzen duten bakoitzean, haien aldetik gutxi gorabehera 5.000€ hilabetero irabaziko ditugu.

The image shows the ALSA logo in a light blue color. The letters are stylized and lowercase, with a modern, rounded font. The 'A' has a unique shape with a pointed top and a curved bottom. The 'S' is a simple, rounded letter. The 'A' at the end is also stylized, similar to the first 'A'.